

BANAKAKO LEHEN OROITIDAZKIA

Gizarte Langintzako Gradua, 2. Maila

Banakako eta Familiako Gizarte Langintza
Haritz Garmendia Iturria
2022-2023 ikasturtea

1. PRAKTIKA: Elkar ezagutzen

1. Zerk harritu edo hunkitu nau?

Hasteko, harritu egin nau ongi ezagutzen ez ditudan pertsonen inguruko informazio sakona jakiteak edo entzuteak. Harritu, hala agian, deseroso sentiarazi. Izan ere,

orokorrean ezagutzen dudana eta harreman estua dudana pertsonen inguruko informazioa bakarrik jasotzen dut. Ariketa honek, egia esan, etorkizunera begira izango naizen gizarte langile moduan, erabiltzaileen historiak entzun eta haien inguruko informazioa modu horretan jasotzeko pixka bat prestatu didala esango nuke.

Hala ere, nik ez daukat inolako arazorik nire egoera pertsonala kontatzeko, eta nirea kontatu dudanean, ikaskide batzuk hunkitu egin direla iruditu zait, eta honek berak, ni hunkitu nau.

Aipagarria iruditzen zait ere, praktikako lehengo galderarekin, bi erreakzio nagusi ikusi ditudala: alde batetik, modu sinplean eta hausnartzeko gogo handirik gabe erantzun duten ikaskideak. Eta bestetik, beraiek nor diren definitzerako momentuan, arazoak eduki dituztenak. Nire ustez, ez gaude gure buruarekin egoetera ohiturik, eta hau, argiago ikus daiteke modu honetako ariketetan.

2. Zer ikasi dut?

Hainbat gauza birgogoratu ditudala esango nuke praktika honekin, baina berria zen zerbait ikasi ez. Hasteko, edonork eduki dezakeela historia gogor bat bizkar ganean, nahiz eta kanpotik ez nabaritu. Eta horregatik, aurreiritziez haratago begiratzea zeinen garrantzitsua den birgogoratu dut. Era berean, famili eredu desberdinak daudela ere birgogoratu dut, eta nahiz eta kulturalki familia eredu konkretu bat derrigortu diguten, beste hainbat eredu ere bete dezaketeela familiak bete ohi dituen funtzioak.

3. Zerk definitzen du jendearen nortasuna? Zein aspektuk?

Jendearen nortasuna definitzen duena, pertsona bat beste jende guztiarengandik desberditzeko duen gauza oro da (fisikoa ez dena).

2. PRAKTIKA: Ladybird

1. PERTSONA + TESTUINGURUA

1.1. Maggieren errealitatea ulertzeko, ze testuinguru dira baliagarriak?

Arazoek, lotura zuzena daukate testuinguruarekin, eta Maggieren kasuan ere, biziki garrantzitsua da hauei erreparatzea, bere jarrera, pentsamendu eta sentimenduak ulertzeko. Baliagarriak zaizkigun testuinguruak ondorengoak dira: familia, lana eta heziketa, bizitokia eta etxebizitza, osasuna, generoa eta adina. Hala ere, aipatu nahiko nuke, Maggie film osoan zehar askotariko biolentzia jasaten duela, nahiz eta, nire ustez filmeak salatu nahi duen biolentzia nagusia, instituzioetatik datorren hori den.

1.2. Nolakoa da bere errealitatea, testuinguru hortako bakoitzean?

Familiaren testuinguruan, umetan zeukan egoera familiarrari erreparatu behar diogu lehenik. Gurasoen eragina nabarmena da bere seme-alabengan, eta Maggieren gurasoak zeukaten harremana, ez zen batere onuragarria izan berarentzat. Hasteko, Maggieren amak tratu txarrak pairatu zituen bere bikotearengandik (Maggieren aita), eta honek Maggie, ziur aski, biolentziaren normalizazio bat egitera eraman zuen ume zenean. Eta Maggie, bere familia eraikitzen doan eanean, bere gurasoengan ikusi duen biolentzia berbera aurki dezakegu bera eta bere bikotekideen artean. Aipatu beharra dago, giro biolento horretan, Maggie argi daukala bere seme-alabei min egitea ez dela aukera bat (behintzat min fisikoa, izan ere, min psikologikoa eragiten die bere seme-alabei, haien ama magnitude horretako biolentzia pairatzen duela ikustera behartuaz, hau bera normalizatzen amaitzeko arriskua daukatelarik.)

Bigarrenik aipatuko dudana testuingurua, lana eta heziketarena da: Argi dugu denok, lana dela, zoritxarrez, pertsona ororen biziraupena bermatzeko baldintza onarritzailea, edo hobeto esanda, lana eginez lortzen dugun soldata. Eta filmean nabarmena den gisara, familia txiroa da Maggierena,

LANA ETA HEZIKETA: Adierazgarria lana ez dagoenean, eta ez izateagatik sortzen diren arazoak. Krisi egoeran lan egiten duten langileek estresa pairatzen dute, etxean suminkortasuna agertzen da, arazo fisiko zein psikologikoak agertuz.

BIZITOKIA ETA ETXEBIZITZA: Bizilekurik eza, infraetxe egoerak, etxebizitza komunitarioak, babespeko etxebizitzak.

OSASUNA: Maggie, bere umeak kentzearen ondorioz eduki ditzakeen gaixotasun mentalak (depresioa,...)

GENERO: Arazo gehienak genero ikuspegiarekin ulertu behar ditugu. Hemen ikasitako jarrera sexualaren ezberdintasuna egongo litzateke.

ADINA: Adinarekin sortzen daitezken diskriminazioak Mendebaldeko kulturarekin egoten dira lotuta, ekialdean askoz estimatuak dira eta. Lana lortzeko zailtasunak

2. FAMILIA

- 2.1. Ze funtzio desberdin betetzen ditu Maggieren familiak? (jaten ematea, harremanak bideratzea, ordezkaritza, baloreak irakastea, ziurtasun fisikoa, ...)
- 2.2. Familia honekin lan egite duten profesionalek, ze arazo ikusten diote familia honi?

3. PRAKTIKA: Mary Richmond

1. Zerk harritu zaitu gehien “La huella de Mary Richmond en la intervención psicosocial del siglo XXI” testua irakurrita ?

Testuan azaltzen diren ideia desberdinen artean, oso interesgarriak iruditu zaizkidan hainbat aipatuko ditut jarraian, hala ere, azpimarratuko dut, ez nautela harritu. Hasteko, aipatu nahi dut, nola modu autodidakta batean garatu zuen Mary Richmondek bere lana, nahiz eta baliabide askorik ez eduki, eta nola, gaur egungo Gizarte Langintzaren oinarrietako batzuk berari esker finkatu ziren. Aipaturiko oinarrietako bat, erabiltzaile bakoitza, bere ingurunearen baitan ulertu behar dugula da, eta ideia honek, nahiz eta ez nauen arritu, azpimarratzekoa iruditzen zait.

Jakin badakigu, ikuspuntu desberdinak egon direla gizarte langintzaren teorizazioen historian zehar. Karitatea baztertearena, da nire ustez, garrantzitsuenetako bat, eta testu honetan ere, aipatzen da, erabiltzaileak berak daukala edo eduki beharko lukeela, bere egoera aldatzeko edota hobetzeko gaitasuna. Eta gure eginbeharra, gizarte langile moduan, gaitasun hoiek lortzen eta erabiltzen laguntzea da.

Lenengo kapitulom (sei dazka), disziplina baten sortzailea (emakumea, gehiengoak gizonak ziren garaian), autodidakta izan zen.

Bigarren kapitulon, metodon inguruan hitzeiteu, pertsona hobekuntzan sinsiten jarraitu behar deula beti. Persona bere ingurumenen ulertu behar dala, ez bakarrik famili testuingurun.

Hirugarren kapituloa: ekarpen zientifikon baliagarritasunan inguruan hitzeiteu, duela 100 urte sortua izan arren, gaurkotasunen aurkitu dezakeula

4.kapituloa: mary ritxmondek ezagutza, esperientzien bitartez lortu du, gogoeta bat, praktikan oinarren da bere lana

5.kapituloa: eskuhartzen innobazioa, ikasten aigean bitartean, gure garatzen goaz,

6.kapoiutlaoi: testu guziti laburpen bezela, osotasunen ulertzeko, begirada zabal bat behar dala

2. Aukeratu testu horretan agertzen diren bi esaldi eta garatu

“Sistematización que marca el nacimiento de esta disciplina y el vínculo entre la práctica profesional y la teoría creándose una relación perfecta que permite el desarrollo del trabajo social.”

“El diagnóstico depende del conocimiento de todos los sucesos de la historia personal o familiar para comprender la naturaleza tanto de los obstáculos vividos como los modos de solucionarlos”

Esaldi honetan azaltzen zaiguna, oso interesgarria dela iruditzen zait. Izan ere, esku-hartze egoki bat egin ahal izateko, erabiltzailearen inguruko informazio ahal bezain osatuena behar dugu. Esaldiak dion moduan, iraganeko arazo zein bizipenak hartu behar ditugu kontutan, momentuko arazoekin elkarloturik egon daitezkeelako, eta dena kontutan hartuz, eman diezaiekegulako aterabidea. Finean, osotasunean ulertzea ezinbestekoa da, diagnostiko zuzen bat egin ahal izateko.

4. PRAKTIKA: Subjektuaren errebantxa

1. Zerk harritu zaitu gehien “la revancha del sujeto” testua irakurrita ?
2. Aukeratu testu horretan agertzen den esaldi bat eta garatu.
3. Proposatuz “Objektua” izendatzeko kategoria bat eta arrazoitu:
 - Zergatik erabiliko zenukeen
 - Zergatik ez zenukeen erabiliko

5. PRAKTIKA: Esku-hartze baten aurrean kokatzen

1. Zein ekosistema hartu dira kontutan esku-hartze honetan?

Hainbat ekosistema hartzen dira kontuan:

- Familiaren ekosisteman hazkunderari dagokiona daukagu: seme bat edukiko du Mariak, eta honen aitarekin harremanetan jartzen saiatzen da, gizarte langileak bultzatuta.
- Lana eta heziketaren ekosistemari erreparatuz, garbitzaile gisa dauka esperientzia gehien, eta arlo honetan denbora tarte batez lan egin ondoren, langabezian geratu eta egoera prekarioa dela eta, prostituziora jotzera behartuta ikusten da. Heziketa arloari lotuta, gizarte langileak, Maria tailer ezberdinetara bideratzen du gizarte langileak, bai hizkuntza maila hobetzeko eta bai bere prestakuntza orokorra lantzeko: psikologikoa, lan mundukoa,...
- Ekintza soziokulturalaren ekosistema ere antzeman dezakegu testuan; bere lagun baten etxera doa (Tarragonara), ondoren Gasteizera bueltatzen da bere lagun baten laguntza jasotzeko.
- Ekosistema komunitarioa agertzen da ere, gizarterako egiten den elkartea delako. Zerbitzu ezberdinak erabiltzen dira, horregatik du garrantzia. Adibidez elkarriketak, emakumeak laguntzeko erakundeak...

2. Ingurunearekin eragina duten eragilek zein indarra dute?

Eragile desberdinak daude:

- Eragile politikoak garrantzi berezia dute, hasteko Maria atzerritarra delako, eta honek, bere baitan emakume arrazializatua izatea dakarrelako. Honekin batera, emakumea izanik, hainbat zapalkuntza jasan behar ditu.
- Ekonomikoa, bere oinarrizko beharrak asetzeko baliabiderik ez duelakoan nabarmentzen da.

- Azkenik, sozio-politikoak, emakumeak Nigeriako ohitura eta balio batzuk ditu barneratuta, eta bere familiaren presioagatik du jarrera hori. Prostituzioari buruzko eta familia ereduaren sinesmenak dira adibide.
- Eragile fisikoaren eragina ikusi dezakegu bere familia Mariaren jatorrizko herrialdean bizi delako oraindik eta haien arteko harremana bereizten dituen distantziarengatik baldintzatua dagoelako.

Planteatzen den pasarteaz azaleratzen diren egoera problematikoak, ingurunearen aldagaiekin daude erlazionaturik. Gizakia eta ingurunearen arteko erlazio edo elkar-eragina definitzen, eragile ezberdinek hartzen dute parte. Mariaren esku-hartzean ondorengo eragileek daukate eragina:

Eragile ekonomikoak dagokenez, hauek, pisu handia hartzen dute Mariaren kasuna. Erabiltzaileak ez dauka bere oinarrizko beharrezkoak asetzeko baliabide nahikorik, eta horrek laguntza behar bat suposatzen dio. Aurkitzen den egoerara eraman duten hainbat faktore ere eragile ekonomikoak erlazionaturik daude, besteak beste, Nigeriatik Gasteizera mugitu izana.

Bestetik, eragile sozio-politikoek eragin handia dute, izan ere, begibistakoak dira bere jaioterriko kultura, arau, ohitura zein sinesmenek Mariarentzat duten garrantzia. Argi ikusten da, haurdunaldian, aitatasunaren ezagutzak erabakiak hartzeko momentuan suposatzen dion ez bai zein presioan. Horrez gain, lehen elkarrizketan Mariak ez du zehazten zein ikasketa dituen eta gaztelera maila baxua duela argitzen du, horrek suposatzen diezazkioken zailtasunak medio.

Azkenik, Eragile fisikoak dagokienez, garbi dago aldaketak daudela Gasteiz eta Tarragona artean, askoz gehiago Nigera eta Espainiaren artean. Baina kasu honetan ez zaigu iruditzen eragile fisikoek Mariaren egoeran eragin handirik dutenik.

3. Zeintzuk dira Ingurunearekin lotuta dauden arazoak testuinguruak?

- Kulturala, hemengo kultura ezberdina da, hortaz talka kulturala gertatzen da. Hasieran egokitzeke zailtasunak suertatzen zaizkio.
- Arrazializazioa, nahiz eta oso argi ez dugun, izan daiteke bere jatorriak baldintzatzea Mariaren etorkizuneko erabakiak eta ekintzak.
- Etxebizitza, lagun batekin bizi da, ez du bizitoki propioa. Geroago, alokairu batean biziko da, baina hau ordaintzeko arazoak izango ditu eta horregatik gizarte zerbitzuetara joko du.
- Familia, gurasoek eragin zuzena dute beregan, hauen sinesmenak eta ohiturak emakumearen portaera baldintzatzen dute.
- Lana eta heziketa, ez du lanik topatzen eta horrek arazo ekonomikoak ekartzen dizkio. Hiri batetik bestera mugitu behar izan da lan bila eta horrek bere lagun batzuk galtzea

eragin dio. Heziketari dagokionez, hizkuntza barneratzeko *Gizarterako* erakundera bideratzen dute.

- Osasuna, haurdun dago, beraz, bere osasun egoera aipagarria eta bere egoera ekonomikoagatik larria izatera heldu daiteke.
- Generoa, bere arazo guztiak ez daude zuzenean bere generoari lotutakoak, baina modu batean edo bestean emakumea izateak eragin nabarmena dauka.
- Erlijioa, Nigerian erlijioak garrantzi handia dauka eta honek erabaki asko baldintzatzen ditu..

Ondorengoak dira ingurnearekin lotura duten arazoentzako testuinguruak, Mariaren esku-hartzeari dagokionez:

Hasteko, Nigeriako kutura zein erlijioak Mariarengan duen eragina kontuan hartzekoa da, izan ere, esku-hartzeak aurrera egiten duen heinean, kultura talka bat ematen da. Bere jaioterriko sinismenen arabera, egitura familiarra aita, ama, eta seme-alabez osatua dago, eta semeak aitaren abizena izan behar du. Hara ere, aitak ordura arte esku-hartzean izandako jarrerarekin, ez daki aita umearen hezkuntzaren parte izatea nahi duen. Esku-hartze honetan zehar, ezinbestekoa da ulertzea Nigerian erlijioa duen garrantzia, eta honek, erabiltzailea, ze testuingurutan uzten duen (egoerak suposatu ditzazkioken kontraesanak). Egoera hori izanda, beste arazo batzuen oinarri gisa identifikatu daiteke.

Bestalde, ingurune familiarra dugu. Mariak, lotura afektibo estua du gurasoekin, eta hauek esandakoari garrantzi berezia ematen dio (haurraren aitari aitatasuna aitortzeko). Honek sortzen duen arazoa ondorengoa da: Nukleo familiarak bere portaera zein erabakiak hartzeko eskumena zehazten eta baldintzatzen dituela. Esango nuke, hau, Mariak duen erreferente bakarra haren familia delako ematen dela, izan ere, ez du bere erabakien zuzentasuna alderatzeko beste talde erreferenterik.

Horrez gain, lana eta heziketaren inguruetik sortutako arazoak egongo lirarteke, nagusia, oinarrizko beharrianak asetzeko gaitasun eza eta honek suposatzen dizkion ondorioak. Diru sarrera nahikorik ez duenez, bere burua saltzera behartua ikusi izan da, bertan tratatu txarrak jasan dituelarik. Gainera, haurdun dagoen emakumea dela kontuan izanik, osasun arloari dagokionez zaintza bereziak beharko ditu, hauek asetu ezin dituen beharrian bezela ulertuta, beste hainbesterekin batera.

4. Zein garrantzia du erabiltzailea emakumezkoa izateak?

Gure aburuz, erabiltzailea emakumezkoa izateak bere bazterketa egoera areagotzen du, izan ere, Maria gizonezkoa izango balitz, bere bizitzan zehar emandako egoera asko aldatuko litzateke; prostituzioa, umea bere kargura egongo dela segurutzat ematen da...

Emakume izateak, erabiltzailearen egoera baldintzatzen eta definitzen du. Eskusio zein zahurgarritasun egoera baten aurrean prostituzioa diru-sarrera azkar moduan identifikatzen du

Mariak (Erabiltzailea gizonezkoa izateko kasuan oso gertagaitza dena). Bestetik, erabiltzailea haurdun dagoen emakumea da eta ondorioz laguntza behar handiagoa izango du.

5. Zer botatzen duzu faltan esku-hartze honetan? Zer gehituko/kenduko zenioke?

Gizarte zerbitzuek bazekiten Maria prostituzioan zebilela eta bertan jaso zituen erasoak eragindako kalteei aurre egiteko, ez zioten psikologora joateko gomendiorik eman. Hori gutxi balitz bezala, ez diote gomendatu osasun azterketarik egitea nahiz eta haurdun dagoela jakin. Azkenik, Gizarte langilearen eta Mariaren arteko harremana nahiko profesionala eta gertutasun maila egokikoa dela gehituko genuke.

Esku-hartze honetan identifikatzen ditugun gabezien artean, Iruditu zaigu ez zaiola prozesuari modu konstante batean erreparatu, besteak beste, bilera batzuen artean egon den denbora tartea dela eta. Honekin lotuta, elkarrizketa batzuetan puntu asko airean edo lotu gabe geratu izanaren pertzepzioa izan dugu, hau da, ez direla izan zitezkeena bezain produktiboak edo efektiboak izan. Horrez gain, iruditzen zaigu hasiera batean zuen desmotibazio horren arrazoiak aztertzeraz begira lanketa sakonagoa egiteko aukera zegoela, bertatik gako interesgarriak eskuratu zein gizarte langile eta erabiltzailearen arteko harremanean sakontzako. Azkenik, osasun arloan lanketa sakonago bat egitea beharbada ondo egongo litzateke, erabiltzailea haurdun dagoela kontuan izanik.

6. Asmatu galdera berri bat beste talde bati egiteko

Nola baldintzatu du gizarte langileak diseinatutako esku-hartze prozesua Mariak momentu bakoitzean izan duen jarrerarak?

Zein ekosistema hartu dira kontuan esku-hartze honetan?

Hainbat ekosistema hartzen dira kontuan:

Familiaren ekosisteman hazkunderari dagokiona daukagu: seme bat edukiko du Mariak, eta honen aitarekin harremanetan jartzen saiatzen da, gizarte langileak bultzatuta.

Lana eta heziketaren ekosistemari erreparatuz, garbitzaile gisa dauka esperientzia gehien, eta arlo honetan denbora tarte batez lan egin ondoren, langabezia geratu eta egoera prekarioa dela eta, prostituziora jotzera behartuta ikusten da. Heziketa arloari lotuta, gizarte langileak, Maria tailer ezberdinetara bideratzen du gizarte langileak, bai hizkuntza maila hobetzeko eta bai bere prestakuntza orokorra lantzeko: psikologikoa, lan mundukoa,...

Ekintza soziokulturalaren ekosistema ere antzeman dezakegu testuan; bere lagun baten etxera doa (Tarragonara), ondoren Gasteizera bueltatzen da bere lagun baten laguntza jasotzeko.

Ekosistema komunitarioa agertzen da ere, gizarterako egiten den elkartea delako. Zerbitzu ezberdinak erabiltzen dira, horregatik du garrantzia. Adibidez elkarrizketak, emakumeak laguntzeko erakundeak...

Ingurunean eragiten duten eragile horiek zein indar dute?

Eragile desberdinak daude:

Eragile politikoak garrantzi berezia dute, hasteko Maria atzerritarra delako, eta honek, bere baitan emakume arrazializatua izatea dakarrelako. Honekin batera, emakumea izanik, hainbat zapalkuntza jasan behar ditu.

Ekonomikoa, bere oinarritzko beharrak asetzeko baliabiderik ez duelakoan nabarmentzen da.

Azkenik, sozio-politikoak, emakumeak Nigeriako ohitura eta balio batzuk ditu barneratuta, eta bere familiaren presioagatik du jarrera hori. Prostituzioari buruzko eta familia ereduaren sinesmenak dira adibide.

Eragile fisikoaren eragina ikusi dezakegu bere familia Mariaren jatorrizko herrialdean bizi delako oraindik eta haien arteko harremana bereizten dituen distantziarengatik baldintzatua dagoelako.

Zeintzuk dira ingurunearekin lotuta dauden arazoentzako testuinguruak?

Kulturala, hemengo kultura ezberdina da, hortaz talka kulturala gertatzen da. Hasieran egokitzeko zailtasunak suertatzen zaizkio.

Arrazializazioa, nahiz eta oso argi ez dugun, izan daiteke bere jatorriak baldintzatzea Mariaren etorkizuneko erabakiak eta ekintzak.

Etxebizitza, lagun batekin bizi da, ez du bizitoki propioirik. Geroago, alokairu batean biziko da, baina hau ordaintzeko arazoak izango ditu eta horregatik gizarte zerbitzuetara joko du.

Familia, gurasoen eragin zuzena dute beregan, hauen sinesmenak eta ohiturak emakumearen portaera baldintzatzen dute.

Lana eta heziketa, ez du lanik topatzen eta horrek arazo ekonomikoak ekartzen dizkio. Hiri batetik bestera mugitu behar izan da lan bila eta horrek bere lagun batzuk galtzea eragin dio. Heziketari dagokionez, hizkuntza barneratzeko Gizarterako erakundera bideratzen dute.

Osasuna, haurdun dago, beraz, bere osasun egoera aipagarria eta bere egoera ekonomikoagatik larria izatera heldu daiteke.

Generoa, bere arazo guztiak ez daude zuzenean bere generoari lotutakoak, baina modu batean edo bestean emakumea izateak eragin nabarmena dauka.

Erlijioa, Nigerian erlijioak garrantzi handia dauka eta honek erabaki asko baldintzatzen ditu..

Zein garrantzia du erabiltzailea emakumezkoa izateak?

Gure aburuz, erabiltzailea emakumezkoa izateak bere bazterketa egoera areagotzen du, izan ere, Maria gizona izango balitz, bere bizitzan zehar emandako egoera asko aldatuko litzateke; prostituzioa, umea bere kargura egongo dela segurutzat ematen da...

Zer botatzen duzu faltan esku-hartze honetan? Zer gehitu/kenduko zenuke?

Gizarte zerbitzuek bazekiten Maria prostituzioan zebilela eta bertan jaso zituen erasoak eragindako kalteei aurre egiteko, ez zioten psikologora joateko gomendiorik eman. Hori gutxi balitz bezala, ez diote gomendatu osasun azterketarik egitea nahiz eta haurdun dagoela jakin. Azkenik, Gizarte langilearen eta Mariaren arteko harremana nahiko profesionala eta gertutasun maila egokikoa dela gehituko genuke.

Asmatu galdera bera bat beste talde bati egiteko.

Uste duzu Mariaren egoera errazagoa izango zela emakume etorkina izango ez balitz?

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK (APA)
